

IV. IRUNGO MARATOI ERDIA + 10K

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak, eskualdeko atletismo klubak, Irungo Udalaren laguntzarekin, **Irungo Maratoi Erdia + 10K**, 2022ko otsailaren 20an, igande goizean antolatuko du. Lasterketak Irún zeharkatuko duen zirkuitu eder batean jokatuko dira. Lehenik 10 kilometro zehatz neurtzen ditutuen lehen itzuli bat burutuko dute korrikalariak (10K lasterketako helmuga) eta ondoren bigarren itzuli bat (itzuli bera gehi erantsi bat) 11,0975 kilometro osatzeko.

Bi lasterketa egongo dira: Irungo maratoi erdia, 21,0975 kilometro izango dituen, eta 10 kilometroko lasterketa. Biak aldi berean abiatuko dira, 2022-ko **otsailaren 20ean 9:45etan**.

2. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketan edonork parte hartu ahal izango du kategoria, sexua edo nazionalitatea, atleta federatua den ala ez, kontuan hartu gabe. Maratoi erdian parte hartu ahal izateko gutxienezko adina 16 urte dira eta 10 kilometrokoan parte hartzeko aldiz 14 urte.

Parte-hartzea **1.500 korrikalaritara maratoi erdian eta 700 maratoi erdian eta 700 korrikalaritara 10 kilometrokoan mugatuta egongo da.**

Korrikalari bakoitzak bere ardurapean parte hartzen du lasterketan, eta irteera-lerroan horrelako probei aurre egiteko behar den egoera fisikoarekin aurkeztuko da.

3. ARTIKULUA- IRTEERA ORDUA ETA PROBAREN GEHIENEZKO IRAUPENA

PROBA	IRTEERA ORDUA	GEHIENEZKO DENBORA
Irungo Maratoi Erdia 21K	9h45	2h 30minutu
Irungo 10K	9h45	1h 15minutu

IGAROTZE KONTROLAK

KILOMETROA	GEHIENEZKO DENBORA
5	35minutu
10	1h 10minutu
15	1h 45minutu
20	2h 20minutu
META	2h 30minutu

LASTERKETAKO ERBIAK

Antolatzaileek erbi lanak egiteko parte-hartzaileen eskura korrikalariak jarriko ditu. Erritmo ezberdinak eramango dituzte, lasterkariei 1h20tik 2h bitarteko denborak lortzen laguntzeko.

Hurrengo erritmoetako erbiak izango dira:

- 1h20 (Maratoi Erdian) / 38min (10k)
- 1h25 (Maratoi Erdian) / 40min (10k)
- 1h30 (Maratoi Erdian) / 42:30min (10k)
- 1h35 (Maratoi Erdian) / 45min (10k)
- 1h40 (Maratoi Erdian) / 47:30min (10k)
- 1h45 (Maratoi Erdian) / 50min (10k)
- 1h50 (Maratoi Erdian) / 52min (10k)
- 2h00 (Maratoi Erdian) / 57min (10k)

IRTEERAREN ANTOLAKUNTZA

Erbiak, eramango duten erritmoaren arabera, beren eremuetan kokatuko dira. Atletei, beren mailaren arabera, erbiaren kokapena kontuan hartuta, bere eremura sartzeko eskatzen zaie. Erbi horiek bere gainean, bandera antzeko bat eramango dute non erbi bakoitzaren helburu denbora idatzita egongo da. Bandera hauek lasterkariak bere tokian jartzeko erreferentzia gisa balioko dute.

4. ARTIKULUA - HORNIDURA

Lasterkarien eskura 5 anoa postu jarriko dira gutxi gorabehera 4,5; 7,1; 10; 15,6 eta 18 kilometroetan. Era berean, helmugan anoa postu bat egongo da, non atleta guztiek hornidura osoa jasotzeko aukera izango dute.

5. ARTIKULUA – INFORMAZIO SEINALEAK

Ibilbide osoan zehar puntu kilometrikoak eta zerbitzu desberdinak, adibidez, anoa-postuak, Komunak, mediku zerbitzuak, dortsalak jasotzeko tokiak, kontsigna zerbitzua, dutxa zerbitzua, eta abar, argi eta garbi seinaleztatuta egongo dira.

6. ARTIKULUA – SOROSPEN MEDIKOA

Ibilbide osoan zehar sorospen medikoa egongo da. Helmugan ere sorospen medikoa egongo da. Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die korrikalariari; era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du korrika egiteak dakarren arriskua. Zerbitzu mediko ofizialak korrikalariak lasterketatik ateratzeko ahalmena izango dute, beraien ustez jarraitzeko baldintza fisiko edo psikiko egokiak bermatutak ez baldin badaude.

7. ARTIKULUA

Ofizialki inskribatutako parte-hartzaileek bakarrik izango dute ibilbidean zehar edo helmugan egongo diren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, esaterako, anoa postuak, sorospen medikoa eta abar. Horretarako, lasterketako dortsal ofizial eta jatorrizkoaren bitartez egiaztatu beharko dute. Dortsala bularraldean eraman beharko dute une oro, tolestu, aldatu edo manipulatu gabe.

Antolakuntzak ez die inolako arretarik edo zerbitzurik eskainiko aurreko baldintza betetzen ez duten pertsonen edo lasterketan dortsalik gabe edo faltsutuko dortsal batekin parte hartzen dutenei, eta hautemateko unean eskura dituen bitartekoak erabiliz lasterketatik kanporatuko ditu.

8. ARTIKULUA - ZIRKUITUA

Zirkuitua erabat itxita egongo da trafikoarentzat eta proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak, behar bezala baimenduta eta identifikatuta, antolakuntzak izendatutakoak izango dira. Ibilbideak bi ituli izango ditu, lehena 10 kilometrokoa eta bigarrena 11,0975 kilometrokoa.

Zirkuituaren eta logistika-guneen xehetasunei buruzko informazio guztia esteka honetan aurki daiteke:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=1xSlkerwVSmGyRKWBlrde-eckxcJ7ByKc&usp=sharing>

9. ARTIKULUA – PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du. Ofizialki izena eman duten parte-hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatuko istripuentzako. Aitzitik, ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoentako ez die babesa emango. Bestalde, aseguruak lasterketa gunera iristeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak ez ditu bere gain hartuko.

10. ARTIKULUA – DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Igarotzek kontrolak egongo dira irteeran eta 5 kilometrora helmugara iritsi arte. Korrikalari guztiek nahitaez kronometratzek alfonbretatik pasa beharko dute. Korrikalariak honako kasuetan automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa burutzen ez badute.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo ezkututzen badute.
- Beste korrikalari bati esleitutako dortsala eta/edo txipa eramaten badute.
- Edizio honetako dortsal originala ezarrita ez badute.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen badira.
- Epaileen edo antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.
- Era berean, gogorazten da zirkuitu barruan erabat debekatuta dagoela antolakuntzakoak ez diren ibilgailu motordunekin edo txirrindekin ibiltzea.

Deskalifikatutako parte hartzaileek sariak jasotzeko aukera guztiak galduko dituzte era berean.

11. ARTIKULUA - SAILKAPENAK ETA SARIAK

Sailkapenak lasterketan egindako denbora GARBIEN arabera egingo dira.

SAILKAPENAK:

10K eta 21K lasterketa bakoitzean bereizitako sailkapenak egongo dira. 10K lasterketak sailkapen orokor bat izango du eta maratoi erdiak sailkapen globala eta kategorien arabera sailkapena izango du, taula honen arabera:

KATEGORIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
23 URTE AZPITIK	2000 urtearen ondoren jaoitakoak	2000 urtearen ondoren jaoitakoak
HELDUAK	1987/02/21tik /1999/12/31ra	1987/02/21tik /1999/12/31ra
BETERANOAK 35-40-45	1972/02/21tik /1987/02/20ra	1972/02/21tik /1987/02/20ra
BETERANOAK 50+	1972/02/21 aurretik jaoitakoak	1972/02/21 aurretik jaoitakoak

SARIAK:

MARATOI ERDIA: kategoria ABSOLUTOKO lehenengo hamar gizonetako eta hamar emakumetako eta 23 urte azpitik, beteranoak 50- eta beteranoak 50+ kategorietako lehenengoek garaikurra jasoko dute.

- | | |
|------------------------------|---------------------|
| 1. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 2. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 3. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 4-10. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra |

10K: 10 kilometrotako lasterketako kategoria ABSOLUTOKO lehenengo hiru gizon eta emakumeek garaikurra jasoko dute era berean.

- | | |
|---------------------------|---------------------|
| 1. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 2. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |
| 3. Gizonezkoa/Emakumezkoa | Garaikurra + Oparia |

12. ARTIKULUA – INSKRIPZIOAK

Izen emateak on-line www.mediamaratonirun.com web gunean **2021ko azaroaren 25an** irekiko dira eta 2022ko otsailaren 19ean 20:00 etan itxiko dira. Otsailaren 14a baino lehenago egindako izen emateentzako, norberaren izenarekin pertsonalizatutako dortsala emango zaie. Izen emateak EDONOLA ERE, korrikalarien kopuru maximora iritsi bezain laister itxiko dira (1.500 partaide maratoi erdian eta 700 10K lasterketan). **Lasterketaren egun berean izen-ematea egiteko aukerarik ez da egongo.**

Aurrez aurre izena eman nahi dutenentzat hiru salmenta gune egongo dira: bi Irunen, Leire Sport dendan, Mendibil merkataritza-gunean eta Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan, Leandro Agirretxe plazako, 1goan. Zen solairuan, 8en bulegoan, 9:00etatik 14:00etara, eta beste bat Hondarribian, Papycop paper-dendan, San Pedro kaleko 42an. Dendan, izen-emateak 2021/12/15etik aurrera egongo dira eskuragarri eta otsailaren 13an itxiko dira..

Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan azaroaren 25tik aurrera izen emateko aukera egongo da.

Itzulketak: 2022/02/16ak arte korrikalariaren izen aldaketa bat egin ahal izango da, 2022/02/17tik aurrera ordea ezin izango da inolako aldaketarik egin.

Izen ematearen prezioa izen ematea noiz egiten den egunaren arabera era honetan aldatzen da:

IZENA EMATEKO EPEA	MARATOI ERDIA	10K
100 lehenago izen emateak	15€	10€
300garren izen ematera arte	20€	14€
301garren izen ematetik 2022/02/13ra bitartean	24€	16€
Azken asteko izen emateak 14/02/2022tik aurrera	28€	18€

13. ARTIKULUA – DORTSALAREN JASOTZEA

Korrikalariaren poltsa Palmera Montero gunean (Leandro Agirretxe plaza, 1znb) egingo den Korrikalarien Ferian jaso ahal izango da honako egun eta ordu hauetan:

OTSAILAK 19, LARUNBATA: 10.00 - 14.00

OTSAILAK 19, LARUNBATA: 16.00 - 20.00

Txip-dortsala jasotzeko, bai formatu digitalean, bai eta paperean inprimatuta, izen ematearen agiria eramatea gomendatzen da. Egiaztagiri horrek irakurri egingo den QR kode bat du. Bestela, NANA edo argazkia duen nortasun-agiria bat aurkeztu beharko da dortsal-txipa jasotzeko. Pertsona batek beste korrikalari baten dortsala hartu nahi badu, izen ematearen agirira aurkeztu beharko du. Inskripzioaren egiaztagiria izen emate-prozesuan emandako posta elektronikoa jasoko dute partehartzileek.

Aurrez jaso gabeko dortsal guztiak, irteera gunean, goizeko 8:00etatik 9:15era lasterketa egunean jasoko ahal izango dira.

14. ARTIKULUA - KORRIKALARIAREN POLTSA

Korrikalarien poltsetan ondorengoak izango dira: Dortsal-txipa (2022/02/14 baino lehen egindako izen emateentzat izenarekin pertsonalizatutako dortsala) kateorrazak, lasterketaren elastiko tekniko bat, laguntzaileen eskaintza desberdinak, lasterketaren eta zerbitzuen planoak, kontsignarako eskumuturrekoa eta abar.

15. ARTIKULUA – DUTXATZEKO, ARROPA JASOTZEKO ETA APARKATZEKO ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak Artaleku kiroldegikoak izango dira, irteera eta helmuga guneatik gertu.

Arropa jasotzeko eta gordetzeko zerbitzua irteeratik 50 metrora kokatuko da, Zabaltza Emparantzan. Lasterketa amaitzerakoan motxila guztiak, helmuga gunean, San Juan Emparantza, jaso ahaliko dira.

Autoz bertaraten direnei parking hauetakoren bat erabiltzea gomendatzen dugu: Irungo La Salle, Artaleku Kiroldegia, San Juan Enparantza (ordainpekoa), Ficoba edo Kolon Pasalekua (ordainpekoa). Hauen kokapena honako esteka honetan agertzen da argitaratuta:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=1xSlkerwVSmGyRKWBlrde-eckxcJ7ByKc&usp=sharing>

16. ARTIKULUA

Antolakuntzatik kanpoko ezinbesteko arrazoiak medio (ekaitzak, lurrikarak, eraso terroristak eta abar) lasterketa bertan behera utzi behar badu, izena ematerakoan ordaindutakoa ez da itzuliko. Dortsala momentu horretan jasota dutenentzat hurrengo ediziorako baldintza abantailatsuak izango dituzte. Segurtasun-arrazoiak direla eta antolakuntzak ibilbidea aldatzeko beharrea egon liteke.

COVID-19, maskararen erabilerari, higieneari, segurtasun-distantziari, Covid pasaportearen aurkezpenari eta abarri buruzko neurriak osasun-egoeraren bilakaerari eta agintari eskudunek unean-une ezarritako jarraibideen arabera egokituko dira. Antolakuntzak, lasterketak parte-hartzaileentzako eta bertaratutakoentzako modu seguruan antolatzeari emango dio lehentasuna.

17. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duten momentutik aurrera araudi hau onartzen dute eta Bidasoa Atletiko Taldeari baimena ematen diote, berak edo beste entitateen bitartez, partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa (argazki, bideo eta abarren bidez) egiteko, hala ere soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia zati batean edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialean. (Ramon Iribarren kalea, 4 - behea, atzekaldea, 20304 Irun)

Araudi honetan aurreikusita ez dagoen oro RFEaren eta World Athleticsen (lehenago IAAFa) 2022ko denboraldirako Lehiaketa Arau Orokorrek arautuko dute.

ARTICULO 18- INFORMAZIO GRAFIKOA

Ibilbidearekin, erantsitako guneekin eta zerbitzuekin eguneratutako informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/edit?mid=1xSlkerwVSmGyRKWBlrde-eckxcJ7ByKc&usp=sharing>